

# Haziak mintzo

## Eñaut Elorrieta San Bixente kolegioan

Abenduaren 8an, "Artista bat klasean" proiektuaren kariatara, Eñaut Elorrietak 3.eko ikasle elebidunak bisitatu zituen.

Ikusmin handia sortu zuen Ken Zazpi taldeko abeslari ohiaren bisitak eta ez zuen huts egin.

Ordu batez, XX. eta XXI. mendeetako euskal musikaren historia aipatu zuen, gehien eragin dioten artistak azpimarratuz. Bere ibilbide profesionala eta musika sortzeko jarraitzen duen prozesua ere



azaldu zuen. Bukatzeko, gitarraz lagundua, hiru kantu abestu zituen, besteak beste «Ezer ez da betiko», 14 urtetan idatzi zuena eta beranduago Ken Zazpi

taldeko kantu ezagunetarik bat bilakatu zena. Ikasleek bisita hori izugarri gozatu zuten. Atzeman zuten akats bakarra laburregia izan zela.

**Hendaiako San Bixente kolegioa**



[euskalhaziak@gmail.com](mailto:euskalhaziak@gmail.com)


# Haziak mintzo

## Ikastetxe katoliko elebidunek haien atea irekitzen



IRAKASKUNTZA KATOLIKO ELEBIDUNA  
ENSEIGNEMENT CATHOLIQUE BILINGUE

**Elebidun, Bietan Hobe!**  
Bilingue, C'est Deux fois Mieux!



Euskarazko irakaskuntzaz ari garelarik, ez da berez pentsatzen konfesionalak diren ikastetxeei. Komunikazio falta? Ezagutzarik ez? Irakaskuntza katolikoak alta bere lekua du! Irakaskuntza Katolikoaren Elizbarrutiko Zuzendaritzaren babesean, Iparraldean 50 ikastetxek euskarazko irakaskuntza elebiduna proposatzen dute: 32 ikastetxe, 12 kolegio eta 6 lizeo, 3.500 ikasle baino gehiagoren-

tzat! 32 ama eskoletatik, 18k murgiltzea proposatzen dute (%100 euskaraz).

**Euskal Haziak** elkarteak, ikastetxe katoliko elebidunetako gurasoak, irakasleak eta zuzendariak biltzen ditu. Bere eginkizun nagusia irakaskuntza elebiduna sostengatzea eta sustatzea da, ikasleei urtean zehar euskarazko aktibitateak proposatuz (euskarazko ikusgarriak, ipuin idazte lehiaketa, Uda Lekuk antolatutik diren egonaldietan parte hartzea) baita ere gurasoendako informazioa/sentsibilizazioa garatuz, euskara eskolako ikasgelatik ateratzeko (familiendako agenda, euskarri ezberdinak).

Ikastetxe guzien federatzeko eta familiei Irakaskuntza Katolikoan euskarazko irakaskuntzaren presentzia ezagutarazteko edo gogorarazteko, ate irekitze eguna antolatua da, otsailaren 3an, larunbat goizean, aldi berean Iparraldeko 34 eskola, kolegio eta lizeotan!

Parte hartuko dutenen zerrenda:

**BAB:** Angeluko Stella Maris eskola eta lizeoa, Arbonako [euskalhaziak@gmail.com](mailto:euskalhaziak@gmail.com)



Jondoni Laurendi eta Hiriburu-ko Jondoni Petri eskolak.

**Errobi:** Ezpeletako Jondoni Extebe, Haltsuko Maurice Harriet eta Itsasuko San Josep eskolak. Kanboko Santa Maria eskola eta San Mixel kolegioa, Larresoroko San Martin, Uztaritzeko Jondoni Bixintxo eta Zuraideko Bihotz Sakratua eskolak.

**Hazparneko lurraldea:** Aiherrako Sortzez Garbia, Beskoitzeko Jondoni Bixintxo, Hazparneko

Santa Teresa eskolak, Ursuia kolegioa eta Armand David Lizeoa.

**Urdazuri:** Donibane Lohizuneko Dona Maria kolegioa, Hendaiako Jondoni Bixintxo eskola, Senpereko San Josep eskola eta Arretxea kolegioa, Urruñako San Frantses Xabier eta Ziburuko San Mixel eskolak.

**Zuberoa eta Baxenabarre:** Al-tzaiko San Luis, Aldudeko Mendi Alde, Donazaharreko San Mixel eta Ortaizeko San Mixel eskolak, Baigorriko Donostei eskola eta kolegioa, Donapaleuko Etxekopar eskola eta kolegioa, Donibane Garaziko Santa Maria eskola eta Mayorga kolegioa, Mauleko San Frantses kolegio eta eskola.

Euskal Haziak gurasoak bere sareko ikastetxeak bisitatzera gomitatzen ditu, haien identitateak, proiektu pedagogikoak eta bertan lan egiten duten irakasleak hobeki ezagutzeko. Ongietorri gure ikastetxetara! Elebidun bietan hobe!

**Kontaktuak**

**Laetitia Eizmendi lehendakari**  
06-38-91-18-01

**Christelle Pucheu**  
koordinatzaile 07-72-55-63-53



# Haziak mintzo

## Izarrak begietan!



Eguberriko, Donostei eskolako CP, CE1, CE2, CM1 eta CM2ko ikasleek opari ederra ukan zuten.

Lehenik, Olentzerok gutun bat ekarri zuen eta barnean puzzle zatiak baziren... gure opariaren lehen partea zen.

Bizpahiru egun berantago, Bizar Xuri ere eskolatik pasatu zen eta berak ere gutuna ekarri zuen, puzzlearen beste zatiekin... opariaren bigarren partea zen!

Horra gure oparia: "Dome"

bat etorri zen eskolarat! Kirol gelan, toki handia hartzen zuen. Barnean sartu ginen eta Eric-en esplikapenekin planetak begiratu ginituen. Gauza anitz ikusi ginituen: planeten lekua espazioan, konstelazioen izenak, ipar poloa eta hego poloa, eguna eta gauaren segipenak... Saioa bukatu zen marrazki bizidun batekin, biziki ederra zen, pinguino batek eta hartz xuri batek esplikatu zaukuten nolaz gaua luzeagoa zen polo batean bestean baino.

Milesker Olentzero eta Bizar Xuri!

*Donostei eskolako ikasleak*

  
**Euskal/Haziak**

[euskalhaziak@gmail.com](mailto:euskalhaziak@gmail.com)



# Haziak mintzo

## Eskolako proiektu berriak

Urte guziz bezala, urtean zehar, Donazarreko San Mixel eskolan proiektu bat lantzen dugu: aurtengo proiektua da manera desberdinez ibiltzea (oinez, bizikletaz, trotinetaz, errotadun ibilgailu batekin). Astean bi aldiz, maila guztiak nahasten ditugu eta elkartzen gira atelierretan lan egiteko (Ama eskolako handiak, bi-

garren eta hirugarren zikloko ikasleak).

Lehenik, Donazarreko karrketan ibiltzean, bide seinaleak eta bideko arauak deskubritu ditugu. Gure ibilaldietan, erakasleek filmatu gaituzte eta gero geletan bideo horiek begiratu edo so eginez ohartu gira promenatzean zer hobetu behar ginuen. Eskolan, zirkuituak proposatuak izan dira. Rol desberdin batzuk bizi ditugu mimoaren bidez: oinezko, auto-gidari, polizia eta zirkulazio argien rolak esperimintatu ditugu eta lan horri esker bideko arauak hobeki ezagutu ditugu.

Urriko egun batez, Baionako Street Art obrak ezagutu ditugu. Santesprietako karrketan ibili gira eta Donazarreko karrkekin konparatu ditugu. Baionan badira su argi gehiago, auto eta oinezko gehiago bideetan eta espaloietan, ga-



raio berriak (trambidea). Egun eder hori bukatzeko, Baionako antzokian Iparraldeko orkestra sinfonikoa zuzenean entzun dugu. Loriatu gira!

Heldu den garaian, bizikleta saioak eskolan biziko ditugu eta berantago ateraldi zonbaitzuk bizikletaz egiten ditugu gure Euskal Herriko paisaia xoragarrien miresteko.

*Donazarreko San Mixel eskolako ikasleak*

  
**Euskal/Haziak**

[euskalhaziak@gmail.com](mailto:euskalhaziak@gmail.com)